

DAMIAN PEDROSA - Hernanin bizi den argentinarra-

“Argentinako krisia Estatu Batuek planifikatu dute”

■ Gainbehera 1975ean hasi zela dio Damianek, Videlaren diktadurarekin ■ Orain, gaizki zegoena are eta okerrago jarri da ■ Argentinan jendea etsia dago, irtenbiderik ikusten ez duela ■ Aspaldiko partez jendea kalera aterata da.

ARGENTINAKO irudi eta notiziek mundua aztoratu dute. Urrutitik ez da erraza izaten datorrena irentsi eta benetan pasa denaz jabetzea. Egoera ulertzen lagunduko digulakoan Damian Pedrosarengana jo dugu.


■ **KRONIKA:** Nondik norra uste duzu sortu dela Argentinako krisia?

DAMIAN PEDROSA: Oihartzunik haundiena orain izan du, baina, krisia aspalditik dator. EEBBk ondo planifikatu dute guztia. munduko boterea mantentzeko bi helburu zituzten: Errusia eta Hego Ameriketara desestabilizatzea. Videlaren diktadurarekin hasi zen gainbehera. Garai hartan izugarritzko kanpo zorra egin zuen Argentinak, 50.000 miloi dolar pasa, eta inongo onura eta aurrerapenik sartu gabe; diru hori galdu egin zen. Zor horrekin erabat lotua bizi da Argentina, buelta eman ezinda.

■ **Jendea zein egoeratan dago?**

Jendea etsia dago, zer egin ez dakiela. Azken urteetan prezioek oso gora egin dute, baina, soldatek ez. Bikote batek hiru lan behar zituen, bizi ahal izateko. Orain, berriz, ia dena paralizatua dago, bai industria bai zerbitzuak...

Jendeak ezin du ahorratu duen apurra bankutik aterata, eta dolarretan oraindik eta nekezago. Jendeak dolarrak nahi ditu, inflazioari kontra egiteko. Pesotan gaur zerbait badaukazu, bihar agian batere ez. Dolarrak, ordea, ez du



Damian Pedrosak euskeraz garbi-garbi hitz egiten du.

baliorik galtzen.

Hori zerbait duenak, baina, miseria ere haundia da. Datu ofizialetan biztanleen % 40 pobrezian bizi da.

■ **Hango lagunek zer esaten dizute?**

Bi e-mail jaso berri ditut, bata lagun batena, eta bestea anaiarena. Hona etortzeko zer egin behar duten galdetzen didate. Garai batean exilio politikoa behar zen; orain berriz, exilio ekonomikoa.

Zerbait daukazunean alde egitea zaila da, baina, han gauzak gero eta okerragora dijoaz eta irtenbiderik ikusten

ez denez, jendeak alde egin nahi du. Baina, alde egiteko aukera ere gutxi dute.

■ **Kanpoko enpresa askok inbertitu du Argentinan. Aberrastasunik ez al dute utzi?**

Hemen saldu digutena gezur haundi bat da. Han enpresak sartu dira, baina, diru gutxi inbertituta. Multinazionalak huskeria bat ordaindu dute; azpiegiturak, eta nahi duten guztia ateratzeko aukera izan dute, inongo kontrolik gabe. Gainera, gobernuak dena eman die, eta langileak ere nahi zuten kondiziotan eduki dituzte lanean.

HAMASEI URTE HERNANIN

Damian orain 51 urte jaio zen Argentinako Tucuman probintzian. Badira 23 urte handik alde egin behar izan zuena, Videlaren diktadura garaian, exilio bila.

Madrila joan zen lehenik, eta urte erdi pasata, Gasteiza. Filosofiako ikasketak izanagatik, ez zuen lortu Argentinatik tituloa bidaltzerik eta Hego Ameriketara bueltatu zen titulo bila, hain zuzen ere Ecuadorra.

Lau urte eta erdi egin zituen han eta titulo eta guzti bueltatu zen, Donostiako filosofia fakultatera. Hernanin jarri zen bizitzen.

1986a ezkerotik Hernanin bizi da, eta bere hitzetan “dagoeneko hemengo” sentitzen da.

Hasiera oso gogorra izan omen zen, “Argentinan ohituta, Euskal Herriko jendea itxiagoa baita”. Orain oso gustora bizi da hemen, bertako giroa eza-gutu, ulertu eta integratu ondoren. Familia ere bertakoa du, andrea eta bi seme alaba: Ainhoa eta Asier.

■ **Egoerari irtenbideren bat ikusten al diozu?**

Gauzak errotik aldatu behar lukete. Lehengo politikariek jarraitzen dute oraindik ere, gauzak oso gaizki egin dituzten arren. Argentinako aberastasunaren erdia kanpo zorraren interesak ordaintzeko erabiltzen da. Boterea hartzen duenak *fondo monetarioari* ordaindu ez, edo urte batzuetako itxaronaldia eskatu beharko lioke.

Botereko nahaste hau militarrentzat tentazioa izan liteke, edo agian zerbait berrria hasteko aukera! □

■ **FUTBOLA**

Hernani-Gure Txoko gaur Zubipen

HERNANIK goiko postuetako kontrario zuzen baten kontra jokatuko du gaur, Zubipen. Gure Txokok 36 puntu ditu, zuriberdeek baino 1 gehiago. Sailkapenean, berriz, zazpigarren eta bederatzigarren daude.

Onenen trenean aurreratzen segitze ezkerok, Hernanik irabazi egin behar du. Gainera, ekipa fuerteen kontra oso partidu onak egin izan ditu. Zubipen, azkenekoan, 7 gol sartu zizkion Zarautzi, bigarren zijoala.

Partidua gaur arratsaldeko 16:30etan hasiko da. □

■ **BOLA**

‘Erregularitatea’ gaur hasiko da

BOLAKO txapelketa garrantzitsuenetakoa bat hasiko da gaur: Erregularitate txapelketa. Erregularitatea banakako txapelketa da eta 3 hilabete inguru izaten da. 12 tiraldi ditu eta ia igandero tiratzen da.

Urnietan hasiko da 09:30etan. Hernanira ere etorriko da: otsailan, Benta Berrin izango da, eta azkenaurreko tiraldia Erenotzun.

Hernaniko bolariak Taldekako txapelketan ez dira zenbaitetan bezain fin ibili. Erregularitatean iaz oso txapelketa ona egin zuten. □

■ **ATLETISMOA**

Ixiar Urdangarin Lasarteko krossean

IXIAR Urdangarinnek atletismo zita haundia du gaur: Lasarteko krossa. Gipuzkoako txapelketa irabazi berria du, eta gaur ere dena ematera joango dela adierazi dio Kronikari. Hala ere, aitortu du kanpotarrak beste maila batean daudela. Ixiarrek Lasarten ez ezik, gaur hamabost jokatuko den Euskadiko txapelketan du burua. □

SANTA BARBARA
PEUGEOT



Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 - Tel. 943 551 139 - 943 551 979

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskuko ez aldatzen ditugu

Peugeot 306	XSD	10.066,95 euro
Peugeot 106 - 5 ate	Diesela	4.056,83 euro
Peugeot 205 - 5 ate	1.4	3.485,87 euro
Ford Scort - 5 ate	16 balbula-gorria	3.305,57 euro
Citroen AX - 5 ate	Diesela	2.343,95 euro
Seat Ibiza - 3 ate	Diesela	2.253,80 euro
VW Polo G.T.	1.3	1.803,04 euro
Seat Malaga 4p.	1.5	1.682,83 euro
Ford Escort	Diesela	1.652,78 euro
Peugeot 309	1.6	1.141,92 euro
Peugeot 205 5p.	Gasolina	1.021,72 euro

Jatetxea



Venta Berri
Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
Larunbatetan itxita.

Ibai mendi Kirolak
Nafar kalea 23
Tel: 943 333724
HERNANI



Ibai mendi

Merkealdietan prezio bereziak:

- GORE - TEX BOTAK 9.990 pta
- XIRA INPERMEABLE TRANSPIRABLEA 14.990 ptatik
- COLUMBIA FORROAK 9.990 ptatik
- COLUMBIA ALKANDORA 3.500 pta (-%50)
- MENDI eta ESKIATZEKO GALTZAK (-%20)
- ZAKU eta MOTXILA ESKEINTZA.

Marka hauek aurkituko dituzu gure dendan:
TRANGO, GRIFBONE, EIDER, SALOMON, BESTARO, TUKLAND, LINE 7, ...



Udal Euskaltegiako ikasleak barnetegian.

Udal Euskaltegiak hitzaldi, musika eta bertso ekitaldiak antolatu ditu, X. urteurrenean

■ Ekitaldiak: 'Txirrita eta Pello Errotaren arteko bertso desafioa', Joxan Goikoetxearen kantaldia eta Andoni Egañaren hitzaldia ■ Otsailaren 22an da aurrenekoa.

UDAL Euskaltegiak 10 urte bete ditu aurten eta urteurrena ospatzeko zenbait kultur ekitaldi antolatu ditu. Lehenbizikoa bertso desafioa izango da, otsailaren 22an. Unai Agirre eta Jexux Mari Irazuk Txirrita eta Pello Errotaren larrutik kantatuko dute, Joxan Goikoetxea eta Idoia Noblek musikaz lagunduta. Saioa Eizemendi sagardotegian da, afa-london.

Martxoaren 20an musika ekitaldia: Joxan Goikoetxeak bere musika produkzioaren laburpena eskainiko du, Biterin.

Maiatzaren 22an, berriz, Andoni Egaña bertsolari eta idazleak sortze-prozesuari buruzko hitzaldia emango du

200 IKASLE

Udal Euskaltegiak 184 ikasle izan zituen lehen ikasturtean eta orain 200 ditu. Gurutze Sa-

laberria euskaltegi zuzendaria-riaren esanetan, azken urteotan ikasle kopurua egonkorra da. Udal Euskaltegiak euskalduntze ikastaro aruntak ez ezik, beharren arabera ikastaro bereziak ere ematen ditu: merkatarientzat, irakasleentzat, gurasoentzat eta abar.

Zuzendariaren ustez, euskera erakusteko metodologian asko aurreratu da. Orain hizketan erakusten da gehiago. □

Pobrezia subsidioa jasotzen dutenen kopurua asko igo da azken 2 urteetan

■ Orain 2 urte 73 pertsonak jasotzen zuten, eta orain 177k ■ Ongintzako asistentak dienez, eskariak oraindik ere igo egingo dira.

ONGINTZAKO Gizarte zerbitzuetako sailak zenbait datu eman ditu Hernanin eta Gipuzkoan pobrezia subsidioa (IMI) jasotzen dutenei buruz. Subsidioa Foru Aldundiak ematen du eta ingresorik ez edo oso baxuak dituztenek jasotzen dute. Subsidioa 400 euro bueltan izaten da hileko, (60.000 pta), baina, aldatu egiten da egoeraren arabera.

Hernaniko errealitateari dagokionez, bi datu:

1) bikoiztu egin da subsidioa jasotzen dutenen kopurua: 73-tik 177ra. Eta aurten, beste 35 eskari bota dira atzera.

2) Gipuzkoan 1.000 pertsonako 5ek jasotzen dute, eta Hernanin ia dobleak: 1.000-tik 9k. Asistenteen ustez, eskariak oraindik ere haunditu egingo dira.

ALKILER LAGUNTZAK

Ingreso oso baxuak eta alkilerrean bizi direnek ere izan le-

zakete laguntza errentaren zati bat ordaintzeko. Hernanin laguntza eskari horiek ere asko igo dira. Asistenteen ustez, horren arrazoietako bat da inguruko herrietako jendeak ere Hernanin alokatzen duela etxea. "Astigarragan edo Urnietan gutxiago alkilatzen da, eta jendea Hernanira dator. Badakigu zenbait herritan alkilerregatik banatu behareko dirua bueltatu egin dutela eskaririk izan ez dutelako". □

Txantxangorriko mus txapelketa astelehenean hasiko da

ELKARTEETAKO mus txapelketak beren martxan diotaz. Bihar bertan Txantxangorriko txapelketa hasiko da.

Parejaka da eta aurten 36 apuntatu dira. Partidak astelehenetik ostegunera jokatuko dituzte. □

TXANTXANGORRIKO MUS PARTIDAK

ASTELEHENA 28	ASTEAZKENA 30
Montenegro-Gorjoni/Olaziregi-Alka	Otaegi-Monroy/Larrañaga-Alberro
Arraras-Pottoko/Loren-Iñaki	Mauri-Txampi/Goikoetxea anaiak
Ceci-Bitxo/Joseba-Rafa	Karlos-Javi/Goni-Bilbao
Arizkorreta-Osa/Galan-Pablo	Pablo-Koldo/Txepe-Zaldua
Balantxa-Balantxa/Pantxo-Pako	Monroy-Andoni/Arandia-Bereziartua
ASTEARTEA 29	OSTEGUNA 31
Ormazabal-w/Pineda-Loinaz	Manu txiki-Txistan/Pepe-Enrike
Lukas-Esteban/Emilio-Gorka	Javier-Pello/Alber-Pedro
Patxi-Jose Leon/Ensal-Garayar	Norberto-Korta/Joxe-Mikel
Iraola-Etxarri/Sesma-Kaki	
Karrera-Basilio/Txato-Txato txiki	

'Etxerat' elkarteak kontzentrazioa gaur Lasarteko krossean

ETXERAT-ek Lasarteko krossean eskatuko du gaur euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko. Hernaniko Etxerat-ek kontzentrazioa joateko deia egin die hernaniarrei. Lasarten bertan bilduko dira, 12:30etan, hipodromoko zubian. □

Musika Bandak kontzertua emango du gaur udaletxeko arkupeetan

Gaur, igandea, kontzertua emango du Hernaniko Musika Bandak. Zortzi obra eskainiko dituzte Manuel Sagarnak zuzenduta. Eguerdiko 13:00etan. □

AGENDA	ZINEA	MUSIKA
	Dr. Dolittle II 17:00etan, Biterin.	Dantzalia Oialumen 19:30etan.
	<i>Spy game</i> 19:30etan, Biterin.	

ZERBITZUAK	
☎ TELEFONOAK	✚ FARMAZIAK
<ul style="list-style-type: none"> ▶ Taxiak: 943 550093 ▶ Udaltzaingoa: 943 333288 ▶ DYA: 943 464622 ▶ Autobusak: 943 556662 ▶ Anbulatorioa: 943 557750 ▶ Jokalari anonimoak 943 331103 	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 336077 ▶ Gaez: Zatarain Andoain. Arteta z/g ☎ 943 290802

AITAN-ETXE
TABERNA
EGUNEKO MENUAK
Larramendi 15 - Tel: 943 550046
HERNANI

ARALAR
TABERNA
ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506

AMEGAR, C. B.
ETXE TRESNAK
SUKALDE ALTZARIAK
HORMA ARMARIOAK
Neurrira egiten ditugu.
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK - TB - BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK
Txirrita kalea 15

Tel 943 551125-Faxe 943 551603
HERNANI (Gipuzkoa)

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia
Urbieta Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

Adarraga
HERNANI (Gipuzkoa)

Hernaniko Udala
IRAGARKIA
Osoko bilkurak 2002ko urtarrilaren 17an hartutako erabaki bidez Hernaniko SU-14.5 Arian, Puig izenekoan, egitekoak diren babes ofizialeko 36 etxebizitza esleitzeko oinarriak onartu dira. Oinarri horiek udaletxeko Herrilan, Hirigintza eta Ingurumen arloko bulegoan daude, jendeak ikus ditzan.
Oinarri horien kontrako erreklamaziorik egin nahi izanez gero 15 egun baliagarriko epea dago, iragarki hau azken aldiz argitaratzen denetik aurrera.

1.- Dokumentazioa eskuratzea:
a) Lekua: Herrilan, Hirigintza eta Ingurumen arloan (4. solairua).
b) Epea: 30 egun, oinarrien iragarkiaren laburpena udaletxeko iragarki taulan eta Kronika, Gara, Egunkaria eta Diario Vasco egunkarietan azken aldiz argitaratzen denetik aurrera.

2.- Informazio ematea:
Astelehen eta ostiraletan 9etatik 13etara, Herrilan, Hirigintza eta Ingurumen arloko bulegoan (4. solairua).

3.- Eskerak aurkeztea:
a) Epea: 30 egun, oinarrien iragarkiaren laburpena udaletxeko iragarki taulan eta Kronika, Gara, Egunkaria eta Diario Vasco egunkarietan azken aldiz argitaratzen denetik aurrera.
b) Lekua: udaleko erregistro orokorra

Hernani, 2002ko urtarrilaren 24a
ALKATEA